



Himalayismoaren historia irauli nahian



Maurice Herzog, tontorreko argazki bakarlean.

EEBBetako argitaletxe boteretsuenetako batek liburu bat kaleratu du, mendizaletasunaren historia bera irauli nahian. Annapurnako glaziar izoztuaren gainean sua hauspotu nahian. Liburu horren arabera, Maurice Herzog eta Louis Lachenal ez ziren tontorrera iritsi, eta horrez gain, Frantziako Gobernuak isilean gorde eta babestu du 50 urteotako lotsa eta ustezko «iruzurra».

Frantziako Gobernuak espedizioaren isiltasuna erosi zuela salatzen du, besteak beste, Kennedyren liburuak

Liburuaren lehen ondorio nagusia horixe da, Herzog eta Lachenal ez zirela mendiaren 8.091. metrora iritsi, beherago geratu zirela nonbait. Eta bigarren ondorio nagusia beste hau: Frantziako Gobernuak espediziodikideen isiltasuna erosi zuela. Paserterean batean azaltzen da Louis Lachenalek egia jakinarazteko ahalegin bat egin zuela, baina Gobernuak

ez ziola utzi. Egia esan, konkisten garai hartan, herrialde bakoitzak irrikatzen zuen bere bandera Himalayako tontorrietan ezartzea. Ingalaterra gogotik saiatu zen Everesten, baina Frantziarentzat izan zen lehen zortzimilakoaren ohorea. Hiru urte geroago etorri zen John Hunten espedizioaren arrakasta.

Herrien ohorearen gainetik, ordea, mendizaleen egia dago, ustez egia zintzoa, gezurretan aritzea norbere burua engainatzea baita. Herzogek dio tontorrera iritsi zirela, eta Lachenalen koadernoko iruzkinak aspalditik ezagunak diren hitzen interpretazioak besterik ez direla; haietan ez dela inoiz tontorra zalantzan jartzen.

Bakean zegoen historia gaiztotuta azalera ekarri du Kennedyren liburuak. Argitalpenak ez ditu zapuztuko bihartik aurrera Frantzian izango diren 50. urteurreneko ospakizunak, baina zalantzaren aldaptan ibili beharko du Herzogek hemendik aurrera. Annapurnakoak baino aldapa handiagoak askotan.

Polemika ez da guztiz berria, baina Michael Kennedyren Annapurnako benetako historia liburuak bizi-bizi hauspotu du. Duela hiru-lau urte, Frantzian bertan, Louis Lachenalen espedizio-koadernoetan agertzen ziren idatziak oinarri hartuta, batzuek zalantzan jarri zuten igoera, baina kontua berehala isildu zen, Herzogen arabera idatzi horietan ez baita inongo momentutan zalantzan jartzen tontorra. Kennedy, ordea, baiezkoan dago. Kazetari estatubatuarrak bere bizitzan nekez gastatuko duen dolar pila eskuratu zuen *Climbing* aldizkaria —mendiko aldizkari onenetsuenetakoa— saldu zuenean, eta diru horrekin Louis Lachenal eta Lionel Terray espediziodikideen koadernoak erosi zituen. Idatzi horietan oinarrituta idatzi du Kennedyk liburua, eta gehiago aberasteko bidea hartu du. 42 urterekin ez omen du lan gehiago egingo.



Maurice Herzog

Herzogek frogatu dezaket... nintzela. Lehendik Louis Lachenalen Lionel Terrayren... eta haietan ez da... momentutan zalantzan... Annapurna tontorrera iritsi

Herzogek argazkia TVEko... impossible saioan agertu ziren tontorreko... da. Hor ez dago inolako zalantzarik»
Herzogek liburuaren argitalpena galarazteko;... sartuko, lotsagarria iruditzen... haurdun haur liburuaren promoziorako... garbia da, eta ez dut horretan... asmorik»

dut ikusi hain mendi handirik. Mundu distiratsu eta mehatxatzailea da aldi berean». Dhaulagiriko ertzetan eta Miristi Kholako inguruetan gora eta behera ibili ondoren, altuerara egokituta zeuden ordurako, baina maiztzeke bigarren astea azkenekotan zen Annapurnako magalean kanpamentu nagusia paratu zuteneko. Monzoia mendiaren beste kantoian zegoen ordurako.

Glaziar pitzatuak erakutsi zien ustez biderik logikoena. Izotzezko erreka eta serac erraldoien artean bidea zabaltzeko euren teknika eta abilezia guztia baliatu behar izan zuten Alpeetako gidari trebatuek.

Tontorreko lehen saioa, saio herabea, Lionel Terray eta Gaston Rebuffatek egin zuten. III. kanpamentutik IV.era iristeko zazpi ordu baino gehiago egin zituzten, elurrarekin eta haizearekin borrokan. Rebuffatek, gainera, ez zituen oinak sentitzen, eta biharamunean jaistea erabaki zuten. Lachenal eta Herzoge-

Annapunak hatzik gabe utzi zuen Herzog, eta 50 urte geroago Annapurna gabe utzi nahi dute bera

na izan zen bigarren txanda. Ekainaren 2tik 3rako gaua ez zen gozoa izan bientzat. V. kanpamentuan, 7.500 metrotan, elurra denda txikia zanpatzeko zorian... Eguna argitu ahala, ordea, eguraldia ere argitu egin zen, eta gailurrerantz atera ziren. Ordu batzuen buruan, iritsi zen une erabakigarria: «Lachenal fantasma bat iruditzen zait, beretzat bakarrik bizi da. Ni, niretzat. Bat-batean galdetu dit: — Buelta erdia ematen badut, zer egingo duzu zuk? — Bakarrik jarraituko dut. — Orduan zurekin noa!». Biek jarraitu zuten gailurreraino. Ekainaren 3an, arratseko 2:00etan, emozioak lausotutako oroitzapenen artean aitzindari batzuekin gogoratu zen Herzog: Mummery, Irvine eta Mallory, Welzenbach, Tilman, Shipton...

Hotzak eraginda, bere onetik aterata beherantz abiatu zen Lachenal; Herzog berandu-

xeago hasi zen jaisten. Halako batean bizkar-zorroto eskularruak jausi eta maldan behera joan zitzaizkion. Tontorraren poztasunak itsututa, une hartan ez zen asko jabetu izotzaren hozkek betirako maingu utziko zutela. Behe-lainoa sartu zitzairen, eta bakoitza bere aldetik iritsi zen V. kanpamentura. Behetik etorrira, zain zituzten Terray eta Rebuffat. Une latzak izan ziren: Herzog hatz guztiak zuri-zuri, odolrik gabe eta hilda; Lachenal oin guztiak izozteekin hazita... Rebuffatek Herzogekin igaro zuen gaua eta Terray Lachenalekin. Gailurreko bi «garaileen» oinak eta eskuak igurzten eta jotzen igaro zuten gaua, zirkulazioa berreskura zezaten. Biharamunean Terray izan zen lehena egoeraz jabetzen: «Alde egin behar dugu, azkar!». Ekaitza gainean, eta Herzog zein Lachenal egoera hartan, ihes egin behar zen goi haietatik. Serac arteko «kartzela» zurian barneratu ziren, desesperazioaren eta indarraren muga-mugan. IV. kanpamentua bilatu ezinik etorri zitzairen gaua, eta, iluntzear, Lachenal artesi batean erori zen. Miraria!: hura baino babes hobeagorik nekez topatuko zuten gaua igarotzeko.

Biharamunean, artesi-ahoa elurrez estalita zegoela, ahalegin izugarria egin behar izan zuten argitara ateratzeko. Lachenal burutik erabat joanda zegoen, eta Herzog hiltzorian: «Zertarako eutsi? Onena, bakean joatea. Nire bihotza harri puska bat da, izoztuta nago erabat. Nire mendian geratuko naiz». Dena galdutzat jotzen zutenean, ordea, Marcel Schatz taldekidea iritsi zen laguntzera. Eta gero Couzy eta sherpak. Bizitzeko gogoa berriro. Bizitzarako bidean, ordea, heriotza zuriak berriro egin zien hozka elurrolde moduan, baina handik ere bizirik atera ziren. Jaitsiera hura alpinismoaren historiako dramarik gordine na eta ederrena da. 50 urte joan dira, eta Herzog bakarrik geratzen da bizirik. Annapurnak hatzik gabe utzi zuen, eta orain Annapurna gabe utzi nahi dute bera. Zertarako?